



Samariar Onaren bideoa ikusiko dugu.

Ondoren, gelan gaudenean, bideoan ikusitakoa haurrekin komentatuko dugu. «Zer egingo zenuten zuek? Nork jardun du ondo?».

Samariarrak ahal zuena egin zuen gizonaren zauriak sendatzeko, baina, gero, ostatura eraman zuen zauritua, bertan erabat senda zezaten.

Guk hori bera egitea nahi du Jesusek: sendatzen laguntzea.

Horretarako, gauza asko egin ditzakegu: entzun, partekatu, lagundu...

Goazen liburuko 68. orrialdera eta irakur dezagun bertan zer idatzi duten. Parabolako pertsonaiak eta bakoitzak zer egiten duen.

69. orrialdeko erantzunak irakurtzen joango gara, banan-banan.

Ikus ditzagun 70. orrialdean egin dituzten marrazkiak.

Orain, lau zpabost talde osatuko ditugu haurrekin:

- talde batekoei, jogurt-ontziak emango dizkiegu,
- beste batekoei, jogurt-ontziak estaltzeko paperak,
- beste batekoei, oinarrian jartzeko paperak
- beste batekoei, margo gorri, beltz eta orlegiak
- beste batekoei, kola edo zeloa

Haur bakoitzak ospitale bat egin behar du, baina, gauzak horrela banatuta, ezinezkoa da.

«Zer egin dezakezue, zuetako bakoitzak bere ospitalea egin dezan?»

Erantzuna da talde bakoitzak besteekin materiala partekatu beharko duela. Eta taldeko kideen artean banatu.

Materiala haur guztiek daukatenean, ospitalea egingo dute, eta etxera eramango dute.

Denborarik izanez gero Samariar onaren gurutzegrama

egingo dugu eta bukatu ondoren has daitezela margotzen; bestela, etxean margotuko dute.

Bukatzeko, kandela piztuko dugu, eta, otoitz gisa, 71. orrialdeko abestiaren letra irakurriko dugu. Katekista esaldiz esaldi joango da, eta esaldi bakoitza irakurri ondoren haurrek errepikatu egingo dute.




LAGUN HURKOA
ZAURIAK
SAMARIARRA
APAIZA
JERIKO

JERUSALEM
GIZONA
LAPURRAK
LEBITAR
ERRUKIA

OLIOA
ARDOA
OSTATUA
DENARIOAK

Hitzak bere tokian jarri ondoren, margotu irudia.



IX GAIA

GURUTZEGRAMA EGINA



O
S
T

G **I** **Z** **O** **N** **A**

D **E** **N** **A** **R** **I** **O** **A** **K**

J

R **T** **P**

E **R**

R **U** **S** **A** **M** **A** **R** **I** **A** **R** **R** **A**

U **A** **I** **U** **A** **K**

K **Z** **S** **K** **J**

I **O** **L** **I** **O** **A** **A** **E**

A **L** **E** **B** **I** **T** **A** **R**

G **Z** **E** **I**

H **U** **R** **K** **O** **A** **M** **K**

N **U** **O** **K**

A **R** **D** **O** **A** **O**

I **A** **K**